

## 2020KO BATZAR NAGUSIKO AKTA

**Eguna:** 2020ko ekainaren 20a

**Lekua:** COVID-19ak eragindako egoera dela kausa, eta martxoaren 27ko 10/2020 Errege Dekretuan zein Som Energia SCCLren Estatutuetan aurreikusitakoa betez, batzar hau telematikoki egin dugu Som Energia SCCLren webgune korporatiboan argitaratutako deialdiaren arabera.

**Hasiera-ordua:** 10:05 (bigarren deialdian egin da).

**Amaiera-ordua:** 14:15.

**Bertaratutakoen zerrenda:** Ikusi bertaratutakoen zerrenda Akten Liburuan.

### Lotutako dokumentazioa

- [Batzarraren bideoa](#)
- [Gai guztien aurkezpen bateratua](#)
- [Batzarraren webgunea](#)
- [Bozketen panela](#)

## **Gai-zerrenda**

Aktako kontu-hartzaileen hautaketa	3
Ongietorria	3
2019ko Memoria sozial eta ekonomikoa	4
2019. Urteko kontuak	4
Kontu-hartzaileen txostena	6
2019ko soberakin kooperatiboaren banaketa	6
2019ko Batzar Nagusian onartutako mozioen itzulera	7
Hizkuntza-normalizazioa	7
PPA akordioen gaineko eztabaida politikoa	7
Tokiko komunitateak proiektuen finantzaketan parte hartzea	8
Som Energiaren elektrizitatea komertzializatzeko proposamen berria	8
Erakunde elkartzaileak: kide diren erakundeek 5 kontratuko muga gainditzea	10
Ildo estrategikoen eta 2020 Ekintza-planaren jarraipena	10
Borondatezko kapital sozialera egindako ekarpenen urteko interes-tasa	11
Barne-erregimenaren Araudia	11
2020–2021 elektrizitate-tarifak	12
Errektore Kontseilua berritzea	13
Kontu-hartzaileak berritzea	13
2020ko aurrekontua onartzea	13
Bazkide-oinarriak planteatutako zalantzei erantzutea	15
Kontu-hartzaileen agurra	18
Errektore Kontseiluaren agurra	18
Bozketen emaitzak	20
Sinadurak	23

## **Akta**

### **Aktako kontu-hartzaileen hautaketa**

2020ko Batzar Nagusiaren buru den Victoria Pellicer Errektore Kontseiluko presidenteak ongietorria egiten dio bazkide-oinarriari. Roger Reixach ari da batzarreko idazkari, eta adierazten du bertaratutako lagun guztiak ezagutzen dituela. Presidenteak bi boluntario eskatzen ditu batzarreko aktako kontu-hartzaile aritzeko.

Antonio Quijada eta Malaquíás Jiménez prest agertzen dira.

### **Ongietorria**

Victoria Pellicer Errektore Kontseiluko presidenteak azaltzen du, COVID-19ak eragindako egoera dela kausa, batzarra birtualki egingo dela. Eta azpimarratzen du zaila izan dela batzarrean kontzientziaz bozkatu ahal izateko adina informazio biltzea.

Ondoren, batzarraren izaera nabarmentzen du. Ez da une puntual bat, baizik eta urtean zehar gertatutakoaren berri emateko, kontu emateko, iritziak entzuteko eta elkarrekin jarrera bat adosteko urtean behin egiten dugun etenaldia, Kooperatibak non jarraituko duen erabakitzearen.

Aurtengo nobedadeak seinalatzen ditu; sakontzeko lana egin da, hala nola komertzializazioan eta sorkuntzan, egungo testuinguru energetikoak aukera berriak eskaintzen baititu. Era berean, gure ildo estrategikoen eta partaidetza-prozesuen definizioan sakondu dugu, Kooperatibako organoak indartzeko ahalegin orokorraren baitan.

Batzarrean parte hartzeko kanalak azaltzen ditu (bozkatzeko, bozketa-panela; zalantzak planteatzeko, Parte hartu gunea), bai eta denborak ere.

Presidenteak gehitzen du talde teknikoa gai teknikoenez arduratuko dela batzarra normaltasun osoz egin ahal izateko.

Jarraian, Gai-zerrendako gaiak aurkeztu dira.

## 2019ko Memoria sozial eta ekonomikoa

**Gaia aurkezten du:** Irene Machuca Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz.

Adierazten du hazten jarraitzen dugula, baina neurri txikiagoan. Jada 100.000 kontratura iritsi gara. Tokiko taldeen topaketa egin da, eta Mataróko Eskola inklusiboagoa. Eskerrak ematen dizkie tokiko taldeen bitartez beren ekarpena egin duten boluntario guztiei, ezin baitute parte hartu batzar honetan. Aipamen berezia merezi dute 49 tokiko taldeen bidez egindako erosketa kolektiboek (guztira 53 dira). Guztira, autoprodukziorako 105 instalazio/450 Kwh sortu dira.

## 2019. Urteko kontuak

**Gaia aurkezten du:** Albert Banal Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:**

- Som Energiaren urteko kontuen azalpen-txostena - 2019/Talde Teknikoa (katalanez · gaztelaniaz · galizieraz · **euskaraz**)
- Som Energia taldearen urteko kontu bateratuak - 2019/Talde Teknikoa (katalanez · gaztelaniaz · galizieraz · **euskaraz**)
- Kontu-ikuskapen independentearen txostena - Urteko kontu bateratuak (**katalanez · gaztelaniaz**)
- Som Energia S.C.C.Lren urteko kontuak - 2019/Talde Teknikoa (katalanez · gaztelaniaz · galizieraz · **euskaraz**)
- Kontu-ikuskapen independentearen txostena - 2019. Urteko kontuak (**katalanez · gaztelaniaz**)

Kooperatibaren emaitzak, oro har, positiboak dira: 1.000.000 eurotik gorako mozkin garbia. Sorkuntzari dagokionez, instalazioak ondo aritu dira: 100.000 eurotik gora,

guztira. Som Renewablesek eragin ekonomiko txikia du oraindik, berriki hasi baita funtzionatzen.

Energiaren prezioak, handizkako merkatuan, behera egin du eta, ondorioz, mozkina lortu dugu (marjina handiagoak). Fakturazioaren igoerak ere lagundu du: kontratu-kopuruak gora egin du eta gastuari eutsi zaio nahiz eta fakturazioak gora egin.

Aurkezpenean ikusgai dauden Kooperatibaren gastuen eta mozkinen zifra orokorrak aipatzen dira.

Aipagarria da JEZ ordaintzeko hornidura. Ez dugu ordaindu behar izan, baina agian aurrerago erreklamatuko digute (horregatik sartu da galeren barruan). Horrela, udalek erreklamatzeko badute, erabilgarri izango dugu. Beste sarrera bat ere gorde egin da: bonu soziala; zeren baliteke dagokion administrazioak aurrerago erreklamatzeko. Gainerako zergek gora egin dute hazkundera dela medio.

Soldata-gastuek gora egin dute ere, baina fakturazioaren hazkunderaren ildoan: % 3,8.

2018an 59 langile zeuden, 2019an, berriz, 70; eta soldata handienaren eta txikienaren arteko ratioa 2,1 da. Talde teknikoan ez dago desberdintasun handirik.

Alokairu-gastuek gora egin dute hazkunderarekin batera, bai eta beste batzuek ere, fakturazioaren ildoan betiere.

2019ko diru-laguntzak aurreko urtekoen antzekoak izan dira. Kooperatibak BeeData sozietatean dituen partaidetzak aipatu behar dira, horiek baitira aurreko urtearekiko aldaketa nagusia.

Gainerako zifrak aurreko urtekoetako antzekoak dira. Mozkinak baliabide propioetarako gorde dira.

Sorkuntzari dagokionez, instalazio guztiek nahiko ondo funtzionatu dute. Instalazio guztiek mozkin garbia sortu dute, bik ez ezik. Sorkuntza alorrean 100.000 eurotik gorako mozkina lortu dugu. Energia fotovoltaikoaren sorkuntza bikoiztu da; eta antzekoa da energia hidraulikoaren nahiz biogasaren ekoizpena.

Som Renewables hasiberria da eta eragin ekonomikoa txikia du; baina aurrerago irabaziak ematea espero dugu.

## Kontu-hartzaileen txostena

**Gaia aurkezten du:** Albert Banal Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, [euskaraz](#), galizieraz

Bazkide boluntarioek kontu-hartzaileei entregatutako txostena azaltzen du (egiaztatzen dute gaur entregatzen dugun emaitzak Kooperatibaren helburua islatzen duela eta ez duela zerikusirik Kanpoko kontu-ikuskapenarekin). Txostena hiru zatitan banatuta dago: emaitza ekonomikoen analisia, hainbat aldagairen gaineko iritziak eta gomendioak, eta beste iritzi eta gomendio politiko batzuk. Borondatezko dohaina erabiltzeko iradokizunak, bazkide edo erabiltzaile ez diren bezeroen inguruko hausnarketa eta hurrengo batzarrean aztergai izan daitezkeen beste iradokizun batzuk jasotzen dira hemen.

## 2019ko soberakin kooperatiboaren banaketa

**Gaia aurkezten du:** Albert Banal Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, [euskaraz](#), galizieraz

Soberakin kooperatiboa Kooperatibaren erreserbetarako erabiltzeko erabakia azaltzen du. Zati bat nahitaez gorde behar da, baina bestea Kooperatibaren funts gisa gorde nahi ote dugun bozkatu behar dugu.

## 2019ko Batzar Nagusian onartutako mozioen itzulera

**Gaia aurkezten du:** Irene Machuca Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, [euskaraz](#), galizieraz

Onartu ez diren 9 mozioek aurrera egin dezakete datorren urterako.

Onartutako mozioen kopurua baino, parte-hartzearen kalitatea da garrantzitsuena. Izan ere, parte-hartzea ez da bozkatzea, baizik eta parte-hartzea babestuko duten lankidetzak eta aliantzak sortzeko aurretiko lana.

- **Hizkuntza-normalizazioa**

**Gaia aurkezten du:** Irene Machuca Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz

Ildo horretan lortutako aurrerapausoak azaltzen ditu. Erabilera-eskuliburuak 4 hizkuntza ofizialetan daude dagoeneko. Weblate aplikazioa integratu da itzulpen automatikoak egiteko. Aipagarria da Xarxa d'Economia Social i Solidària sareko itzulpen-kooperatiba batekin egindako lana. 2020an zehar, eduki estatikoei (Laguntza Gunea, Parte hartu eta abar) helduko diegu. Gero, sare sozialetako eduki dinamikoagoi; ondoren, fakturak lau hizkuntzetan sortzeko ERP sistemari; eta, azkenik, posta bidezko arretari. Kontuan hartu behar dugu zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea oso konplexua dela.

- **PPA akordioen gaineko eztabaida politikoa**

**Gaia aurkezten du:** Nuria Albet Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz

Esparru politikoari heltzen dio. Eginkizuna bete da eta, prozesuan zehar, hobeto landu beharko ditugun eztabaidagai sakonagoak sortu dira. Partaidetza-prozesua azaltzen du. Seinalatzen du PPA akordioen helburua energia-subiranotasuna lortzeko proiektuak bultzatzen laguntzea dela, Kooperatibaren sorkuntza-iturriak dibertsifikatzeko. Halere, garrantzitsua da ere kontuan hartzea norekin egiten diren kontratuak; horregatik irizpide batzuk ezarri beharko genituzke. Hau da funtsezko eztabaida: Kooperatiba prest dago, tradizio fosiletik datorren merkatua uztearren, energiagatik gehiago ordaintzeko?

- **Tokiko komunitateak proiektuen finantzaketan parte hartzea**

**Gaia aurkezten du:** Sara Gutiérrez Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz

Partaidetza-prozesua azaltzen du. Seinalatzen du sortutako dokumentazio guztia Parte hartu plataforman dagoela eskuragarri. Oraingoan, informazio ondoreetarako bakarrik sartu dugu gai hau zerrendan, bide luzea baitugu aurretik. Badago gai honen gaineko eztabaida-guneak sortzeko konpromisoa; hala, aipamen berezia merezi du mozio hau bultzatu zuen Energia Gara Nafarroa taldeak. Adierazten du ez dela komunitate energetikoen gaia jorratu, ez baita hori partaidetza-prozesu honen asmoa. Mozioaren testuingurua azaltzen du, tokiarekiko lotura bultzatzeko erronka. Jorrotutako gaiak eta mozio beretik harago sortutako eztabaidak aipatzen ditu, Kooperatibaren erronkak, alegia. Bazkide-oinarriaren bultzada azpimarratzen du, eta baita partaidetza-kanalak hobetzeko beharra ere, iristen diren proposamenak Kooperatibaren barruan garatzeko.

## **Som Energiaren elektrizitatea komertzializatzeko proposamen berria**

**Gaia aurkezten du:** Roger Reixach Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz, **bideoa**

Lehenik eta behin, Talde Teknikoa zorientzen du informazioa bazkide-oinarriaren eskurago jartzeagatik.

Elektrizitatearen komertzializazioaren aurrekariak azaltzen ditu. Kooperatibaren alor horretan aurrera egiteko batzarrean eztabaidatuko diren gaiak zehazten ditu.

Jarraian, Kooperatibak lortu behar dituen sarrerak kalkulatzeko orain erabiltzen ditugun irizpideak aipatzen ditu, marjina gordina oinarri hartuta. Kooperatibaren egiturazko hazkundera gogoan hartuta, oraingo esparruak zer-nolako zailtasunak dituen azaltzen du, besteak beste, energiaren prezioaren hegakortasuna. Hortaz, beste eredu batzuk baloratzen dira, EBITDAn oinarritutakoa esaterako: ez dago



energiaren kostuaren mende eta interesen zein zergen aurretiko mozkinetan oinarritzen da. Kooperatibaren gastuari eusten zaiola bermatzeko, kontrol ekonomikoak, adierazleak, ezarri beharko genituzke.

Fakturan bonu soziala sartzearen inguruko eztabaida aipatzen du. Horren aldeko arrazoiak xehatzen ditu eta bozkatuko den proposamena azaltzen du.

Gaien laburpena: orain arteko elektrizitate-tarifen gaineko zalantzak (adibidez, kontsumo txikiko kontratuak), prezioak batzarren aurretik berrikustea (ezarrita dagoen moduan), tarifa indexatuak ezartzeko eskaerak eta, azkenik, Espainiako merkatu elektrikoan aurreikusten den araudi-aldaketa garrantzitsua.

Amaitzeko, komertzializazio-marjina aplikatzeko proposamen berriari heltzen dio. Bidesari-aldaketa indarrean sartu orduko aplikatuko litzateke.

Prezio finkoen iraunaldiaren berrikuspena aztertzen du, orain arteko ibilbidea eta eragozpenak nahiz abantailak nabarmenduz. Proposamen berria azaltzen du.

Azken gaia: tarifak berrikustea. Tarifa indexatuak ezartzeko aukera, tarifa batetik bestera aldatzeko mugimendu oportunistak saihesteko elementuak erantsita. Inkestaren emaitza iruzkintzen du.

(Victoria Pellicerrek bazkide-oinarriari parte hartzeko erabil ditzakeen kanalak gogorarazten dizkio.)

## **Erakunde elkartzaileak: kide diren erakundeek 5 kontratuko muga gainditzea**

**Gaia aurkezten du:** Sara Gutiérrez Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz

Oraingo egoera azaltzen du, eta dagoeneko Kooperatibako bazkide diren erakunde elkartzaile batzuen adibideak ematen ditu. Figura horren helburua zein den zehazten du, eta zertan bereizten den interkooperaziotik. Proposamena eta bete beharreko irizpideak argitzen ditu: erakundeak 5 irizpideetako 1 bete behar du. Erakundeak

zer-nolako egoera juridikoa izan behar duen eta trantsizio energetikoarekin hartu behar duen konpromisoa adierazten ditu ere.

## Ildo estrategikoen eta 2020 Ekintza-planaren jarraipena

**Gaia aurkezten du:** Carme Sala Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz, **bideoa**

Ildo estrategiko horien inguruko batzarreko informazio guztia non dagoen azaltzen du.

Lehen ildoari (1. Ildo estrategikoa) heltzen dio: bokalien sorrera eta haien funtzioak nabarmentzen ditu. Datorren urterako, bazkide-langilearen rola garatzeko asmoa azaltzen du. Parte hartu gunea etengabe eboluzionatzen ari denez gero, 2. Ildo estrategikoa osatugabetzat jotzen da. Datorren urterako, genero-plana garatzeko asmoa azaltzen du. 3. Ildo estrategikoa: tokiko talde aktiboenak identifikatu dira eta eskerrak eman zaizkie adierazitako interesagatik. 2021ean, tokiko taldeak jardueraren arabera mapatzen jarraitzeko asmoa agertzen da. 4. Ildo estrategikoa: borondatezko dohaina kudeatzeko fundazio bat sortzeko aukera mahaigaineratu da. Komertzializazioa haziko dela aurreikusten da. 5. Ildo estrategikoa: interkooperatibismoarekin inplikatzeko asmoa, eta kooperatiben batasuna aipatzen da. 6. Ildo estrategikoan aurrera egitea: autokontsumoan oinarritutako aktibismoa. Beste esparru batzuetan sartu nahi dugu. 7. Ildo estrategikoa: azpimarratzekoak dira enpresen txosten energetikoak. Puntu horri lehentasuna ematen zaio. Autoprodukzioari dagokiolarik, nabarmentzekoa da ere erosketa kolektiboak (guztira, 20) abian direla. Hurrengo urterako, autoprodukzio komunalean (hots, komunitate energetiko txikiak) aurrera egiteko proposamena egiten da. Azpimarratzekoa da sorkuntza-proiektuei emandako finantza-laguntza, instalazioen kudeaketa automatizatzeke eta sorkuntzaren inguruko eztabaidak sustatzeko asmoz.

Pobrezia energetikoari dagokionez, ezin izan da ezein dokumenturik sinatu; hortaz, datorren urterako utziko da eginkizun hori. Prestakuntza arloan, bazkide-oinarriarentzako eta Errektore Kontseiluarentzako 4 ikastaro sorbidean daude. Ikastaroak emateko trebakuntzan arituak diren beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea aurreikusten da. Instalazioen ordezkartza propioa seinalatzen du, eta mugikortasun elektrikoarekin lotutako erakundeak bultzatzeko eta babesteko

nahia. Eredu energetikoaren inguruan eztabaidatzen jarraitu behar dugula iradokitzen du, batez ere, eskaria malgutzeko. Amaitzeko, informazio zehatzagoa non aurki daitekeen gogorarazten du.

## **Borondatezko kapital sozialera egindako ekarpenen urteko interes-tasa**

**Gaia aurkezten du:** Ero Lugalde Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz

Testuinguru ekonomikoa azaltzen du, eta seinalatzen du ez digula aldaketa handiak eragin; beraz, haren ustez, ez dago arrazoirik interes-tasa aldatzeko.

## **Barne-erregimenaren Araudia**

**Gaia aurkezten du:** Nuria Albet Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz, **bideoa**

Azaltzen digu zergatik aldatu behar den Barne-erregimenaren araudia. Errektore Kontseiluak bultzatu du aldaketa, bere rola eta erantzukizunak formalizatzeko eta sarrera antolatzeko. Hala, hori guztia Barne-erregimenaren araudiaren bidez ezartzen da. Esparru orokorretik abiatuta, eremu zehatzagoetara jotzen lan egin dute. Aipatzen du aldaketa txiki batzuk egin direla batzarraren aurretiko saio birtualaren ostean. Nabarmentzen du, Errektore Kontseiluaren ustez dokumentu hau bizirik eta eboluzionatzen ari dela eta, aldi berean, ulertteraza izan behar duela. Nobedadeen berri ematen du: sarreran dokumentuak zertarako balio duen eta nola kudeatzen den azaltzen da. Errektore Kontseiluari dagokionez, hautagaitza-prozesua eta organoan sartu ondorengo prestakuntza formalizatzen ditu. Dokumentuak Errektore Kontseiluaren bokaliak barne hartzen ditu. Dokumentua idaztean egindako aldaketak eta ñabardurak azpimarratzen dira.

Amaitzeko, aurreko batzarretan onartutako gaien zerrenda. Batzarraren aurretiko topaketa birtualean mahaigaineratu ziren aztergaiak aipatzen dira.

## 2020–2021 elektrizitate-tarifak

**Gaia aurkezten du:** Roger Reixach Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz

Adierazten du, tarifa berrietan, aurreko urteetako irizpideak aplikatuko direla eta, gero, bozketen arabera, aldaketak egingo direla. Energiaren prezioaren definizioan eragiten duten aldagaiak azaltzen ditu. Aurten, prezioa jaitsi da handizkako merkatuan; GenerationKwh prezioak, ordea, egonkorra izaten jarraitzen du. Tarifa berrien prezioak zehazten dituen laburpen-koadroa azaltzen du. Autoprodukzio-modalitateari dagokionez, iazko prozesua berrikusi da. Ondorioztatzen da ezin izan dela bete araudia atzeratu egin delako eta enpresa banatzaileen kudeaketa motela izan delako. Zailtasun horiek agerian jartzen dituzten zifra batzuk aipatzen ditu. Azaltzen du, inkestaren emaitzaren arabera, bazkide-oinarriaren posizioa ez dela argia modalitate horretako kontratuekiko. Hortaz, oraingoz gaia bere horretan uztea proposatzen da. Bidesarrietan egin beharreko aldaketak COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz atzeratu egin dira. Berrikuntza horrek zer ekarriko duen eta aurreikuspen horri buruzko informazio non aurki daitekeen azaltzen du.

## Errektore Kontseilua berritzea

**Gaia aurkezten du:** Victoria Pellicer Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz, **bideoa**

Victoria Pellicerrek jasotako hautagaitzak aurkezten ditu. Hainbat hautagaitza jaso izanaz pozten da, eta eskerrak ematen dizkie hautagai guztiei. Aurten 2 plaza daude betetzeko. Hautagaitzak non ikus daitezkeen jakinarazten du eta hautagaitzak aipatzen ditu. Hautagai guztiei zorte ona opa die.

## Kontu-hartzaileak berritzea

**Gaia aurkezten du:** Victoria Pellicer Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz

Victoria Pellicerrek azaltzen du non ikus daitezkeen hautagaitzak (Parte hartu gunean) eta eskerrak ematen dizkie hautagaiei.

## 2020ko aurrekontua onartzea

**Gaia aurkezten du:** Albert Banal Errektore Kontseiluko kideak.

**Lotutako dokumentazioa:** gaztelaniaz, katalanez, **euskaraz**, galizieraz, **bideoa**

Azaltzen du aurrekontua aurreko urteko, hots, 2019ko, emaitzen arabera egin dela; horregatik ez ditu pandemiaren ondorioak jasotzen. Ñabardura batzuk bakarrik egingo dira eta ez da asko aldatuko. Seinalatzen du sarrerren ataleko emaitzak aurtengo oso antzekoak izango direla. Baina bozkatuko den aurrekontua Errektore Kontseiluak 2019. urtearen amaieran onartu zuena izango da. 2020ko aurrekontua, oro har, aurreko urtekoaren antzekoa da. Mozkinak % 7 jaitsiko direla aurreikusten da. Hiru ataletan islatzen da jaitsiera hori. Alde batetik, sarrerren atalean, % 16ko hazkundera aurreikusten da; bestetik, gastuetan, igoera handiago samarra (% 30-40); eta, azkenik, beste partida eta zergen atalean, beherakada. Sarrerren atalean, tarifak mantentzea aurreikusten genuen, kontratuek eta fakturatutako kWh-ek gora egitea eta eskariaren egitura aldaketa handirik ez izatea. Ondorioz, sarrerak % 16 haztea aurreikusten genuen. Horrekin bat etorriaz, energia-hornikuntzan % 16ko hazkundera aurreikusten zen ere. Gastuen atalean, hainbat partidatan (soldatak, esplotazioa eta gastu arruntak) igoera aurreikusten zen. Adierazten du gastu horiek, sarrerekin alderatuta, gehiago hazi direla Talde Teknikoa handitu egin delako. Izan ere, azkenean, 2019an egin gabe gelditu ziren kontratazioak 2020an egin dira, ondo funtzionatzeko egitura lortu ahal izateko. Hala, aurreko egitura urria eguneratu egin da. Esplotazio-gastuen atalean, aipagarria da prestakuntzarako partidaren, komunikaziorako partidaren (Kooperatibaren 10. urteurrenaren ospakizuna) eta beste hainbat partiden (adibidez, eraikinak)

hazkundera. Hala, esplotazio-gastuak % 40 igo dira. Laburbilduz, sarrerak % 16 igo dira, eta gastuak apur bat gehiago; baina beste partida batzuk murriztu dira, batez ere, zergenak (zehazki, Jarduera ekonomikoen gaineko zergagatik 0 ordaindu dugu). Finantza-emaitzari dagokiolarik, INECOren dibidenduek behera egitea aurreikusten genuen, elektrizitatearen prezioak behera egin duelako, eta martxoko jaulkipenari dagozkion borondatezko kapitalera egindako ekarpenengatik ordaindu beharreko interesak ere kontabilizaten dira.

Amaitzeko, Covid-19ak eragin dituen hainbat aldaketa seinalatzen dira. Halere, aurrekontuak aurreikusitakoaren oso antzekoa izaten jarraitzen du. Energiaren prezioak eta, ondorioz, sarrerek nabarmen behera egingo dutela aurreikusten dugu. Tarifak jaitsi ditugu, baina gutxiago ordainduko dugu energiarengatik; hortaz, azkenean, esplotazio-marjina apur bat handiagoa izango da. Murrizten zen zergen partida, azkenean, hornitzen jarraituko dugu, agian zergak ordaindu behar baititugu. Gehitzen du, pandemiak eragindako egoeraren ondorioz, ez ordaintzeen aurreikuspena handitu dela. Hala ere, oro har, 2020rako aurrekontuan aurkeztutakoaren antzeko egoera aurreikusten da.

- **Gai-zerrendako gaiak agortu dira -**

Victoria Pellicerrek hitza hartzen du eta hurrengo urratsen eta dagozkien denboren berri ematen du. Gogorarazten du zalantzak Parte hartu gunearen bidez bidera daitezkeela.

Atsedenaldi bat egiten da, baina Youtube kanalean batzarra ez da eteten. Tarte horretan zehar, pantailan ikusgai dago bazkide-oinarriak zalantzak Parte hartu gunera helarazteko prozedura, Errektore Kontseiluak zalantzei erantzun diezaien.

12:30ean, zalantzak jasotzeko kanalak ixten dira, eta Errektore Kontseilua Talde Teknikoarekin biltzen da jasotako zalantzei erantzuteko.

13:00etan, berriro ekiten zaio Batzarrari eta zalantzak erantzuten dira. Errektore Kontseiluko kideak arduratzen dira zalantzak erantzuteaz.

Victoria Pellicerrek azaltzen du bozkatuko diren gaiekin zerikusia duten zalantzak lehenetsiko direla eta, gero, informazio-puntuen gaineko beste zalantzei erantzungo dietela.

## **Bazkide-oinarriak planteatutako zalantzei erantzutea**

Albert Banalek borondatezko zentimoan egindako aldaketei buruzko galderari erantzuten dio. Adierazten du, urtean zehar, datorren urtean bozkatzeko mozio bat prestatu beharko litzatekeela. Hausnarketa egin beharko genuke ere sorkuntza-estrategien inguruan, ardatza autokontsumoan jarrita. Eztabaida horri aurre helduko diogu; beraz, aukera izango dugu horren inguruan hitz egiteko. GenerationKwh proiektuari buruzko galdera guztiei erantzun bakar batekin erantzuten die, esanez instalazio batek galerak dituela. Energiaren prezioaren beherakadak instalazio guztien emaitzei eragiten die eta, ondorioz, errentagarritasuna txikiagoa da. Baina hori guztia konpentsatu egiten da, komertzializazio-atalean, mozkin handiagoak lortu ditugulako. Funtsean, adierazitako 35.000 euroak galera onargarriak dira, GenerationKwh proiektuak eredu-aldaketan duen eragina kontuan hartuta.

Energiaren prezioei dagokienez, gogorarazi behar dugu, irailean, aurrekontuan aurreikusitakoarekin bat gindoazela; baina, azken hilabeteetan, prezioak iragarri baino askoz gehiago jaitsi dira eta, ustekabean, aurreko urteetakoak baino mozkin dezente handiagoak lortu ditugu.

Sorkuntza-estrategiari dagokionez, baloratzeko beharra aipatu da eta aurreko estrategia lantzea aurreikusten da, denon artean erabakitze nola helduko diogun gai horri, batik bat, kontuan hartuta energiaren prezioak, oro har, behera egin duela eta sektorean aldaketak iragarri direla.

La Tejería proiektuetarako kapitalera egiten diren borondatezko ekarpenen jaulkipenak ez dira egingo 2022. edo 2023. urtera arte.

Victoria Pellicerrek azaltzen du nola banatzen diren galderen erantzunak.

Núria Albetek azaltzen du borondatezko zentimoaren banaketa Errektore Kontseiluak identifikatu duen eta hurrengo urtean jorratu nahi duela auzi politikoa dela.

Sara Gutiérrerek adierazten du erakunde elkartzailen inguruan bozkatu beharreko puntua mekanismo eta kontratu gehiago izateko proposatzen dela, baina, Kooperatibaren hazkundea birplanteatzen bada, auzia aurrean eztabaidatu beharko genukeela. Uste dugu hori bozkatu egin behar dela bazkide-oinarriak erabaki dezan. Zehazten du erakunde elkartzaila izango dela bazkidea, botoa izango duena; kideak, aldiz, bezero/erabiltzaileak izango dira. Proposamenaren helburua da etxeok ez diren ekipamendu-kontratu gehiago lortzea.

Mozio batek behar dituen gutxieneko babesen gainean, Irene Machucak azaltzen du, agian, mozioek ez dutela gutxieneko babesa jaso ez dutelako interesa piztu edo beste proposamen batzuekin edo baliabide erabilgarriekin lotuta daudelako. Bazkide askok ikusi dituzte mozioak Parte hartu gunean, baina mozioek ez dute behar besteko botorik jaso. Azaltzen du gogoan hartuko dela mozioek 500 babes lortzeko eskakizuna zalantzan jarri dela, behar izanez gero, birplanteatzeko. Eta gogorarazten du parte-hartzea bozketaren aurretik doala: sare-lana egiten da (hala nola tokiko taldeetan), auzia Parte hartu gunera eramaten da interes-maila neurtzeko eta, kalitate demokratikoa helburu hartuta, kalitatezko mozio bat prestatzeko lan egiten da. Lagun askoren artean lan fina egitea gomendatzen du.

Ero Lugaldek azaltzen du nola ezartzen diren 2020rako hainbat aurrekontu-partida. Tokiko taldeen aurrekontu-partidak bi kontzeptu barne hartzen ditu: tokiko taldeen urteko topaketa eta tokiko talde autonomo bakoitzari esleitzen zaion aurrekontua. Soldata-gastuen partida hazi da lan-baldintzak bidegabeak zuzentzeko doitu egin direlako. Kasu batzuetan langile-kopurua defizitarioa zen, eta soldatak Kooperatibaren beharretara egokitu behar izan dira. Esaterako, finantza-taldean langile bakarra zegoen eta orain 6 lagun daude; halere, defizitarioa izaten jarraituko du, Kooperatibako kontu-hartzaileen ustetan. Beste sarrera batzuei buruzko atalean sarrera minoritarioak sartzen dira, besteak beste: bazkideek, erosketa kolektiboetan izena ematen dutenean, ekarpen bat egiten dute eta horren zati bat Kooperatibari dagokio; eta ordainagiria bi aldiz itzultzen denean 3 € kargatzen dira. Bestetik, sozietate partaidetuen fakturazioaren kontzeptua sozietate partaidetuek Som Energian eragiten duten kostuaren bidez kalkulatu da. Enpresa horiek erakunde juridikoak dira, baina Som Energia da haien jabe eta kudeatzailea, soldata-kostua barne. Eta, gainera, lana errazteko, hornitzaileek fakturak Som Energiari bidaltzen dizkiote eta, gero, kostu hori sozietate partaidetuei transferitzen zaie. Galderen harira, esaten du, Kooperatibak ez duela laguntzarik eskatu Covid-19ak eragindako egoera gainditzeko, oraingoz, *a priori*, ez dugulako laguntzarik behar; baina, jakina, badakigu funts horiek eskuragarri daudela eta Kooperatiba gisa eska ditzakegula. Argitzen du likidezia-ratioaren eta defentsa-probaren ratioaren jaitziera ez dela



kezkatzeko modukoa. Ratioak Kooperatibak epe laburrera zor duen euro bakoitzeko zenbat eskudiru duen adierazten du. Orain arte, zor genuen euro bakoitza 5 aldiz itzul genezakeen; hortaz, erabili gabeko dirua zegoen. Ratioa murriztu egin da produktuak nahiz proiektuak sortzeko eta bazkideak gogobetetzeko.

Albert Banalek IT, informatikako giza baliabide, software eta abarren aurrekontua azaltzen du. Aurrekontua handitu egin da Kooperatibaren prozesuak ahalik eta gehien automatizatzeko. Horregatik erabiltzen ari dira baliabide gehiago, aurreko urteetako defizita konpentsatzeko. Ildo berean, gerentzian, partida bat esleituta zegoen. Azaltzen du gerentzia-eredua lantzen ibili direla (Kooperatibaren berrantolaketaren baitan) eta gerentzian beste lagun bat sartzeko aukera aztertzen ari direla. Oraingoan, ez da ezer egin eta, ziur aski, urtearen amaieran, txikiagoa izango da kontzeptu horri esleitutako partida.

Talde teknikoko Eduard Quintanak komertzializazioaren gaineko zalantzak argitzen ditu. Faktura guztietan Kooperatibaren egiturazko gastura egindako ekarpena jasotzea eskatzen da. Eduard Quintanak argitzen du egiturazko kostuak urteko kontuetako txostenetan jasotzen direla, eta kostu horiek fakturretan jasotzean ez genukeela errealitatea modu fidagarrian islatuko eta, hortaz, ez duela zentzurik. Nolanahi ere, estimazio gisa jaso litezke. Bestalde, futuroen merkatuko erosketei dagokienez, adierazten du iaz energia eguneko merkatuan erosi izan bagenu baino gehiago ordaindu genuela. Izan ere, aurten, garestiagoa izan da futuroen merkatuan erostea. Eta guk prezio egonkor eta ezagunak mantentzeko konpromisoa hartu dugunez gero, aurten, dekalaje bat izan dugu. 2018. urtean, berriz, kontrakoa gertatu zen: guk kostu ezagunak mantendu genituen eta, Frantziako krisi nuklearraren eta neguko klima txarraren eraginez, eguneko merkatuko energia garestiagoa izan zen. Beraz, gakoa da, merkatuaren hegakortasunaren aurrean, egonkortasunari eustea. Amaitzeko, ordezkartza-jardueraren gaineko galderari erantzuteko, azaltzen du jarduera hasiberria dela eta ikusi behar dugula zenbat denbora beharko dugun beste enpresen kalitate bereko zerbitzua eskaini ahal izateko.

Núria Albetek Barne-erregimenaren araudiari buruzko berariazko galdera bati erantzuten dio, genero-aniztasunaren gainekoa. Azaltzen du Barne-erregimenaren araudian genero-aniztasuna txertatzeko proposamenak (testua aipatzen du) lehen urratsa egiten duela Kooperatibaren gizarte-aniztasuna bultzatzeko. Baina, kontuan hartuta Talde Teknikoa jada genero-aniztasunaren ildoan lan egiten ari dela eta

ekonomia sozial eta solidarioaren sarean sartuta gaudela, asmoa da Kooperatibaren eremu guztiek ikuspegi horrekin lan egitea eta hausnarketa egitea.

Victoria Pellicerrek hitza hartzen du zalantzak argitzeko tartea ixteko. Bozketa-eroldaren berri ematen du: 500 lagunek eman dute izena, baina 300ek bakarrik bozkatu dute. Bozkatzeko dei egiten du. Jarraian, orain arte kontu-hartzaile aritu diren bi lagunak agurtzen ditu eta eskerrak ematen dizkie erakutsitako konpromisoagatik. Hitz batzuk esateko aukera eman die.

## **Kontu-hartzaileen agurra**

Santi Martik eskerrak ematen dizkie bazkideei kontu-hartzaile aritu den 3 urteengatik. Egindako lanarekin harro dago. Oparia erakusten du egindako ahaleginaren ikur. Ikaskuntza eta lankidetzaz azpimarratzen ditu.

Santi Andorrak eskerrak ematen dizkio Kooperatibari kargua betetzeko eta bere harri-koskorra ekartzeko aukera emateagatik. Bazkideak parte hartzera animatzen ditu, proiektua indartzeko eta hobetzeko. Talde Teknikoari eskerrak ematen dizkio, bereziki Carlesi eta Lorenari, bai eta kontu-hartzailetzako beste lagunei ere.

## **Errektore Kontseiluaren agurra**

Carme Salak agur erlatiboa dela seinalatzen du; izan ere, Lleidako tokiko taldetik parte hartzen jarraitzeko asmoa du. Azpimarratu nahi du, Errektore Kontseiluko kide gisa, sentitu duela Som Energia uharte bat dela ozeano handi batean, pertsonen arteko harremanek eta herritarren energiak bultzatutako uharte oparo bat. Prestakuntza etengabea eta asko jasotzen dugun sentsazioa du, baina ohartarazten du testuingurua gero eta konplexuagoa dela, erakundeak gero eta handiagoak direlako. Jakinaren gainean egon eta beste uharte batzuekin elkartu behar gara. Maila pertsonalean, esaten du urte hauetan ikasi duela nork bere buruarekin konpromisoa hartu behar duela; izan ere, mundua aldatzeko guk aldatu behar dugu lehenik. Hala ikasi du erabaki onena elkarrekin hartzen duguna dela, entzuten ikasi

behar dugula. Eskainitako tartea aprobetxatzen du hausnarketa hori egiteko. Eskerrak ematen ditu eta zorte ona opa die denei.

Victoria Pellicerrek hitza hartzen du; hunkituta dago bere ere. Errektore Kontseiluan igarotako bost urteen errepassoa egiten du. Eskerrak ematea eta aintzat hartzea. Lehenik, ikasi duenagatik; eskerrak ematen dizkie lagunei proiektu honetan jarritako ilusioagatik. Bigarrenik, Som Energia gaur dena izatera iristeko pertsonak egin dute ahalegina aintzat hartzeko beharra. Proiektu honek eskatzen duen konpromisoa aintzat hartzea, Errektore Kontseiluan, bazkide-oinarrian, tokiko taldeetan, Talde Teknikoan, gerentzian, kontu-hartzailertzan, gurekin lankidetzan aritzen diren beste erakunde-lagun batzuetan... Adierazten du, katastrofista izan daitekeen testuinguru batean, Kooperatiba beste balio batzuk irudikatzen dituen proposamen positiboa dela. Agur esaten du, Kooperatibak eskaintzen dituen beste partaidetza-gune batzuetan jarraituko duen arren.

Roger Reixachek, Errektore Kontseiluko beste kide guztien izenean, eskerrak ematen dizkie Vickyri eta Carmeri; jakinarazi nahi du ekarpen baliotsua egin dutela biek, talde-lan eredugarria, zaintza eta kudeaketa demokratikoa, eta hori guztia oinordetzan utzi diotela Kooperatibari.

Irene Machucak Errektore Kontseiluko kideen hitz hunkigarriekin bat egiten du. Sentitzen du, urte hauetan, Vickyk eta Carmek gauza asko irakatsi dizkigutela eta zikloa aurrera doala. Ziklo hau zoragarria izan da, eta lotura sendoak sortu ditu.

Ero Lugaldek eta Errektore Kontseiluko gainerako kideek eskerrak ematen dizkiete ere.



## Bozketen emaitzak

Erroldako lagunak, guztira:		589		
Galdera	Baiezkoak	Ezezkoak	Abstentzioak	Onartuta ?
1: Ondo iruditzen zaizkizu 2019. urteko kontuak?	455	3	131	Bai
2: Ondo iruditzen zaizu 2019ko soberakin kooperatiboaren banaketa?	457	4	128	Bai
3: Ondo iruditzen zaizu, urtero, aurrekontua prestatzean, interesen eta zergen aurretiko mozkinetikiko, % 0,5 eta % 2 bitarteko emaitzak lortzea helburu izatea?	414	37	138	Bai
4: Ondo iruditzen zaizu, kontratazio orokorretan, bonu sozialaren kargua fakturan aplikatzea, erraz ikus daitekeen lekuan?	425	33	131	Bai
5: Ondo iruditzen zaizu, salmenta-prezioak diseinatzean, komertzializazio-marjinaren, gutxienez, % 70 energia-terminoari eta, gehienez, % 30 potentzia-terminoari aplikatzea?	361	79	149	Bai



6: Ondo iruditzen zaizu prezio finkoaren tarifa urtean behin berrikusi ordez, sei hilez behin berrikustea?	412	53	124	<b>Bai</b>
7: Ondo iruditzen zaizu, nahi dutenei, prezio finkoko tarifez gain, merkatuari indexatutako tarifak eskaintzea, tarifa-modalitatea aldatu (tarifa finkotik indexatura pasatzea, eta alderantziz) ahal izateko maiztasuna mugatzen duten elementuak txertatuta?	382	62	145	<b>Bai</b>
8: Ondo iruditzen zaizu bazkide ez diren pertsonentzako kontratazio-mekanismoak zabaltzea, Som Energiako bazkide diren eta interkooperazio-akordioetarako ezarritako irizpideetako bat, gutxienez, betetzen duten eta hitzarmena sinatzen duten erakunde elkartzaileek interesa duten erakunde elkartzaileetako kideen elektrizitate-kontratuak babesteko 5 gonbidapenen muga gainditu ahal izateko?	372	82	135	<b>Bai</b>
9: Ondo iruditzen zaizu, 2020. ekitaldirako, kapital sozialera egindako borondatezko ekarpeneni % 1,75eko interes-tasa aplikatzen jarraitzea?	433	10	146	<b>Bai</b>

10: Ondo iruditzen zaizu Barne-erregimenaren Araudiaren dokumentua? (gehiengo indartua)	403	8	178	<b>Bai</b>
11: Ondo iruditzen zaizu 2020ko aurrekontua?	426	13	150	<b>Bai</b>

## Errektore Kontseilua

		
Assumpta Farran Poca (277)		Ricard Jornet Ginestà (181)

## Kontu-hartzaileak

		
Carles Cuadern Codina (192)		Quim Ruiz Querol (137)

## Sinadurak

Victoria Pellicer, presidentea	Roger Reixach, idazkaria
Aktaren edukia irakurri ondoren, dagozkion ondorioak izan ditzan sinatu eta onetsi egiten dut.	
Malaquías Jiménez, aktako kontu-hartzailea	Antonio Quijada, aktako kontu-hartzailea